Gipuzkoa, 15-Behea. Telf: 88 23 87-88 02 9
20240 ORDIZIA (Gipuzkoa)

GENERALI Aseguroak

IÑAKI ARIN BAZTARRIKA

Oriako Pasealekua, 20 -Tfnoa: 88 87 02
20200 BEASAIN

GURPIL

J.M. Iturrioz, 1. - Telf: 88 89 51
Nafarroa Etorbidea, 3. - Telf: 88 21 03
20200 BEASAIN

- Zerbitzu zuzenak furgonetarekin
- Zerbitzu nazionalak
- Zerbitzu internazionalak

gaur
express
mensajeros-mezulariak

BEASAIN 88 89 38
88 83 17



Ataun Futbol Taldea: futbol taldea eta besterik ez

Goierritarra hilabetekariko lagunok:

0-1 zenbakian argitaratu zenuten artikulua bati erantzutera dator *Ataun Futbol Taldea*. Esan dezagun lehen-lehenik, benetan harrigarria egin zaigula, aurrez inoiz kaleratu gabe zegoen aldizkari batean eta bere lehenbiziko zenbakian, *Korreo* deitura darman saila izatea.

Bestetik, harrituta gaude baita ere, *Ataundar gazte bat* firmatuz, izen-deituren berri eman gabe artikulua argitaratu delako. Badakigu noski, aldizkariak ez duela bere gain hartzen aldizkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzunkizunik, baina harritu egin gaitu benetan.

Sarrera modura bi gauzatxo hoiek esan ondoren, gatozen *Ataun Udala Kirola\$ blai* izenburupean argitaratu zenuten artikuluari puntuz-puntu erantzutera.

1.— Ataun Futbol Taldea, aldizkari hau bezalaxe, oso jaioberria da. Uztailean eman zituen lehenbiziko pausoak aspaldiko amets bat egia bihurtu nahian. Orain 20 urte auzo-lanez futbol zela bat egin zen Ataunen. Urtero urtero, 100 lagunetik gora hartu izan dute parte egin den Futbol-txapelketan. Inguruko herriek ondotoxo dakite, Ataungo jokalaririk bat baino gehiago izan dituztela heuren taldeetan. Joxemiel Barandiaran Eskolan izugarritzko lana egin eta egiten da gaztetxoekin eta taldearen asmoa litzateke, egiten den lan hori herrian bertan gelditzea, ahal den neurrian behintzat. Horretarako soluzio bat izan daiteke *Ataun Futbol Taldea*, pixkanaka-pixkanaka edade guztietako talde berri gehiago sortuz.

2.— Lehen pausoak. Uztailean eman ziren lehen urratsak. Ze aukera, ze arazo, ze laguntza, ze diru etabar planteatu ondoren. Berehala jaso genituen animoak aurrera jarraitzeko. Oraintxe bertan ia 400 sozio ditu taldeak eta benetan oso adierazkorra da 1.800 biztanle dituen herri batean. Lehen pauso hauetan arazoak ere izan genituen noski. Herrian dugun futbol-zelaiak ez du arauzko neurriarik eta horrenbestez, Lazkaoko Udalari eta Futbol-taldeari esker, Lazkaon jokatzen ditugun dagozkigun partiduak.



Pentsa dezakezuenez arazo haundi xamarra da hori, bai partiduak antolatzerakoan bai sozioak eta zaleak herrikanporo eramaterakoan. Esan dezagun gainera bide batez, jokalaririk guzti-guztiak ataundarrak direla.

3.— Diru kontuak. Horrela hasi ginen lanean. Talde ofizial bat ateratzeko gastu haundiak dakartza: erro-pak, autobusa, arbitro ordainketak, erro-pa garbiketa, botikiña, fitxak, kirol materiala, argia, gasa, ura etabar. Guztira eta tenporadaren hasieran milioi bateko *presupostua* prestatu genuen. *Presupostu* horixe aurkeztu genuen Ataungo Udalean, Udalaren esku egon zitekeen lagun zezan. Udalak erantzun zigunez, *milioi erdi bat* emango zitzaigun. Esan gainera, oraindik ez dugula xentimo bakar bat ere jaso, baina agindu zitzaiguna horixe da.

4.— Argiaren arazo eta giltza. Taldea martxan jartzearekin batera, beste prolema gehiago agertu zitzaigun eta hoiaren artean, ilunduta Ataungo futbol zelaiaren ez zegoela entrenatzerik. Hori dela eta, argi batzu jartzearen beharra ikusi genuen eta udalarekin hitzegin ondoren, lortu dugu argia jartzea. *Argiaren kostua ordea, ez doa Udalaren kontura. Udalari argi eta garbi esan genionez, argiaren kostua Futbol-Taldearen kontura izango da* (alboan duzue udalari egin genion eskari ofiziala). Beste puntualizazio bat ere bai: argia itzeli eta pizteko

bi giltza daude: giltza bat du taldeak baina beste giltza bat du udalak eta giltza hori utzi edo ez udalaren esku dago.

5.— Lokal arazoak. Gezurra da baita ere, goitik beheraino gainera, udalari lokal bat eskatu diogunik. Udalari ez zaio ezer eskatu eta gu gure aldetik ari gara lokal bat aurkitu nahian. Momentuz, ez dugu ezer lortu baina aha-legenetan ari gara, herriko zokoren bat guretzat hartzeko.

6.— Futbol Taldea eta Ataungo etxe-bizitzak. Taldearen helburua, Ataunek futbol arloan ordezkartzea bat izatea da beste helburu batzuekin batera. Gustako litzaziguke noski, Lazkaon jokatu ordez Ataunen bertan jokatzea baina gure eginkizuna ez da, herriak zer egin behar duen orain edo zer gero erabakitzea. Gu ez gara inor zelai berria, herriko beste behar batzuen aurretik edo atzetik egin behar dela esateko. Udalak jakingo du momentu bakoitzean herriari ze komeni zaion eta ze prioridadez.


Gure aldetik besterik ez. Gauzak eta zalantzak bere puntuan jartzeko balio izango duelakoan idatzi dugu karta hau. Oraintxetik adierazten dizuegu, gure aldetik amaitutzat dagoela polemika hau eta ez garela replika-kontrareplika lehian sartuko.

Segi bizkor!

Ataun Futbol Taldea.
Presidente, Tomas Auzmendi.



Erredakzioaren oharra: Egia esan, **Korreo** sail-izena inprimategi akatsak zirela medio atera zen erraturik; gainera, artikulua hark zuenak beste zuen **karta** izaeraz, hau da, kartazal baten barruan iritsi zitzaigun bien ala biak. Idazkia eskura iritsi zitzaigun eta, beraz, egilea ezagun dugu. Berak espreski espreski hala nahi zuelako, ez genuen bere izen deituen berri eman, zilegitzat jotzen dena bestalde kazetel munduan. Eskubide hori onartzen dugun bezala, mantentzen dugu erreplikakarena, baina oso ondo oraintxetik adierazi **diguzuen** legez, polemika amaitezina ez dute lekuri hemen eta alde kontrajarriak inpartzialtasunez plazaratzea besterik ez dugu egin egundaino ez eta egingo aurrerantzean. Ez harritu hainbeste hortaz eta ea zuen berri izan dugun bezala herri horretako eta beste hainbat herriakondik norako eta berri on ere izaten dugun. Halabiz!



Beasingo Alkatearen iritzia (Ahoz jasoa)

Arriarango urtegia oso gai garrantzitsua dugu bailada mailan baina halaz ere ez dakit zergatik ari den hainbesteko importantzia hartzen. Orain dela urte asko planifikaturiko zerbaite da, eta ez azken orduko edo bapateko trikimailu bat. Alderdi bezala Udal-Plenoan definitu ginen. Azterketa tekniko serio eta sakon bat zegoen egin, Estatu mailan traiektoria hobereetakoa izango duten pertsona batzuk eginda, Diputazioko teknikoak, hain zuzen, politikoak ez direnak eta Lareoko presa burutu zutenak gainera. Lareoko presa mundu guztian ari da ejenplutzat jartzen. Hor zegoen estudio bat, hor zeuden garantia batzuek, baietza eman geniolarik. Gertatu zena izan zen beste batzuk azken momentuan eta elektoralismo hutsez eta fribolitate izugarri jiro bat eman zutela zalantzak botaz aidera. Nik uste dut hori irrespontsabilitate hutsa dela zeren eta hasiera batetan beraien proiektua bait zen eta beraiek egin behar bait zuten. talde hortako Diputatuak oniritzia eman zuen eta orain kas-

Arriarango urtegia dela eta

keta bategatik atzera bota dira, 10-100-1000 botugatik. Baietza eman dugunok ez gara gai honetan teknikoak, baina minimo edo, nahi bezala deitu, batzuek; herri honetan gauzak ondo egiteko mentalitatea dago; zalantza batzuek bota eta galderak egitea ondo dago, baina teknikoak ez direnak zalantzak bota eta gainera mantentzeak jendearen arteko kezka sortzen du. Arriaranen bilera bat egin genuen bertakoekin, teknikoei galdera batzuek egin zitzaizkien bai alde batetik zein bestetik, nik ez det esango jendea konbentzitu genuenik baina presa orain urte askotako proiektua da eta ezin gara orain hasi bai,ez, beste era batera..., teknikoek estudiantua daukate. Orain bertan, pizarreriarena dela, eta Arriaran bai dagoela presarekin baino okerrago: inpakto ekologikoa batetik eta pligrositatea bestetik. Azken puntu hau ez da brometakoa. 83ko uholdearekin suerte handia izan genuen, bai Arriaranen, bai Beasainen, urak bertido horiek aurrera eramanez ez zituen. Orain presa egingo da, uraren arazoa nagusiki soluzionatuz, irtenbide bat eman beharko zaiolarik pizarreria eta bertidoen asuntuari.



Presak bentaja gehiago ere badauzka: presak uholdeak geratzen dituzte. Legazpiko presak, adibidez, gelditu egin zuen uholdea.

Iñaki Erguin

Amundarain (Zaldibia), Estanda (Gaboria), Lareo (Ataun) eta Arriarango presa-proiektuei buruzko gure iritzia ez da gehiegi aldatzen batetaz edo bestetaz aritu. Lehortaldietan akordatzan dira gure erakunde eta udal-txeak uraren erabilpen zuzenaz kontzientzia sortu beharraz, gainerako urte boladetan despilfarroa izanik ardatz nagusia.

Ur-poltsa eta ur-putzuak aurkitzen saiatu ordez gure udalen politikak eskualdeko erreka eta erreken ageriko urak depositoetan gordetzea du helburu; modu hau jotzen da errexerretzat ura lortu eta hiritarren beharrian demasiazkoak asetzearren, uraren erabilpenaren inguruko arrazionalizazioa eta heziketa alde batera utziz.

Arriarangoari dagokionean esan, delako presa hori kokatu nahi deneko ingurua berez nahikoa kaltetua dagoela bertako arbel-harrobiaren existentziaren kausaz; ezin ahaztu honek dakartzan, batetik, arbela transformatzeko faktoria, eta bestetik, zabortegia. Izan ere ez du obra honen aldeko ezer adierazten kontentzio-dikea bistan uzteko asmoak.

Kontutan hartzekoa baita ere eredu ekologikoa omen den Lareoko presan ikusitako ondoko akatsok:

1.— Inpakto ekologikoaren azterketan aurrikusitaketatik urrun dago harrespilarako harria lortu zeneko harrobiaren errekupeazioa; egin dutena izan da lurra bota eta arboleska batzuek landatu inagurazio egunerako.

2.— Uraren kalitatea ziurtatzearren urari sabore txarra eman liezaioke eta presa azpiko sasi eta laharren erreketari ekin zitzaion, ondorioz erremedioa gaixotasuna baino okerrago suertatu zelarik. Inpakto azterketaren segimenaren utzikeria hainbestearainokoa izan da ezen eskabadora eta beste makinak oligo-aldaketak ere urak estaltzen duen superfizian egin ziren. Honen eta sasi-erreketa argazkiak ditugu.

Ez da harritzekoa ba zalantzan jartzea gure instituzioek bultzaturiko obra hauen beharra eta jarraitu den azterketa sistemaren egokitasuna.

Beasaino Ekologistak



azkar
transporte

- 70 ordezkaritza baino gehiago dituen erakundea
- Penintsulako edozein puntutara zerbitzuak

Hiribarren, 32 - Tfnoa: 88 07 50 - Fax: 88 81 12
L A Z K A O



LAGUN ARO
SEGUROS ASEGURUAK

Nafarroa Etorbidea, 27 — Telefonoa: 88 62 50 / 88 31 00
B E A S A I N

EHUNGARREN URTEBETETZEAN

J.M. Barandiaran eta J.M. Apalategi, irakaslea eta ikaslea, aurrez aurre

Ataunen, abenduaren 2an, zapatua, goizean egitekoa zen elkarrizketa arratsalderako uzten da, etxerako meza ospatu beharra baitauka elkarrizketatu beharrekoak. Arratsaldeko 4ak dira "Sara" etxean hizketaldia egiten hasteko unea. Gertu antzematen dugu Joxemigelen 100. urtebetetzea, hile honen 31.ean, San Silbestre egunez ospatuko baitugu.

Jm.Apalategi.-- Don Joxemigel: zu, Goierrin, zein herritan ibili zara ikerkuntzan?

Jm.Barandiaran.-- Gu, hemen. Ataunen pixkat; Zegaman ere beste puxkabat; gero, Ursuaranen, hemen inguruan, bertan.

Jm.A.-- Zein urtetan, gutxi gorabehera?

Jm.B.-- Jainkok daki! Horik aspaldiko kontuk dira-eta, aspaldikok oso. Zein urtetan ibiliko nintzen bada? Behin baino gehiagotan eta alditan ibili bai, baino ze garaietan...? Artean apaiza nintzen, bai-bai, ordurako apaiztua negoen.

Jm.A.-- Ataunen, Zegaman eta abarretan, bakarka ibiltzen zinen ikerketetan?

Jm.B.-- Lanean aritzen zirenekin, hakin aritzen ginen, inguru haietan aritu behar gendunez, ingurukoekin aritu behar. Bertako langileak hartu menpen eta tira!.

Jm.A.-- Langileak hartzerakoan, baten batek laguntzen zizun?

Jm.B.-- Beno, bai... adiskideren batek edo hola, Ursuaranen ere apai-zek, nola zan hura?, ene, ezaguna da oso...! Bestela, geurok ere bilatzen genitun. Gero, jornalero batekin hasi eta harek beste bat bilatu eta hala. Hala aprobetxatzen zan.

Jm.A.-- Eta zure gazte denboran, Goierri hitza esaterakoan, zer ulertzen zen horrekin?



Bere ama zenaren hitzak: «Zu sagarrondoa bezela izan behar zera: geroz eta kargatuagoa ordun eta apalagoa».

Argazkia: Gema Montero

Jm.B.-- Inguru guzti honi deitzen genion guk Goierri. Guretzat Goierri hituen herriok: Ataun, Lazkao, Zaldibi, Ursuarango hauek, Zegama ere bai, tartekoak. Guretzat behintzet gehiena horik, Zumarraga ez zan sartzen, Ormaiztegi bai, Itsasondo ere bai eta Tolosaldera, berriz, handik honuntzakoa, Tolosatik gorakoa, Alegri ere bai.

Jm.A.-- Zuk nola ikusten duzu izan dela orduz geroztik gaur arteko parajeotako aldaketa, lehen zer bizimodu klase eta...?

Jm.B.-- Ataunen antzera gutxi gorabehera igoaltsu. Aldaketak? Haundik! Lehen asko bizi zan etxetik. Etxeko esatera, ohiturak, usadioak..., bertan ikasiak, gurasoetatik zetozenak. Gero aldatu gaituk komunikabide berriekin, ez bizi izatea etxetik baizik eta kanpotik. Etxera etorri eta segituan hasten gaituk kanpoko gauzak ikasten. Etxekoak alde batera utzi eta kanpotik bizi. Lehen ez huen hola. Gaurko medioek ekarri gaituzte kanpotik bizi izatera, kanpotik datorrenari begira.

Jm.A.-- Eta komunikabideetatik zein ikusten duzu nagusia?

Jm.B.-- Radiotik asko aitzen dugu, hori jarri zan da. Oraingo kontua duk, e!, ez oso aspaldikoa! Radioa hasi zanean jendea ia erotu egin huen horrekin. Josus! Ikaragarri da egin dan aldaketa! Lehenago bertakoa... eta orain mundu guztiak ikasi. Jende hori ondo onartu zian, etzekiat onerako zan edo ez, baino! Dana-dala...

Jm.A.-- Eta beste diferentziarik ikusten duzu atzo eta gaurko Goierriren artean?

Jm.B.-- Aldaketa haundiena lehen esandakoa. Etxeari eta etxekonekoari ez baino kanpokoari begiratzen diogula.

Jm.A.-- Geroari begira, zer gertatu liteke?

Jm.B.-- Geroari begira, hala moduz jarraituko duela, kanpotik bizi izaten. Etxera ailegatu, zapaldu botoia eta aurrera!

Jm.A.-- Eta batek bere herriari eta ingurugiroari eutsi nahi badio, zer hartu beharko luke kontutan?

Jm.B.-- Kanpokoari kasu gutxi egin behar, baino ez diagu kontseguitu hori. Zergatik hala daude gauzak. Eragin azpitik aldegerik? Ka! Hartu beharra zegok nahitanahiez.



«Haitzean jaioak, haitzean nahi»

Argazkia: Gema Montero

Jm.A.-- Familiaren baitan ederki nabarmentzen da bai! Bestalde, gaur egunean, gaurko bizimodua estudiantzen jarraitzekotan, zer eskatuko zeniguzuke?

Jm.B.-- Kontutan hartu beharra zegok dena, lehendik datorkiguna eta arrotza zaiguna. Egiaz hala dek gauza, diren bezela hartu behar. Beste era batera bizi gaituk, beste bizikera batzuei begira. Lehenago berriz, zer zan bada? Etxekoa, auzokoa eta herria, pixkabat gehixeago/gutxixeago, hori zan gure mundua, modu hortara zegoan jendea. Zer esango? Ikusmira haundirik etzegoela behintzet, urrutira, hortxe, kasik baterez. Joan huan hura ere. Etorri dituk gauza berriak, nik bizi zetuak nola sartzen joan diran eta jendeak nola hartzen zuen. Gure etxera ere, baserrira, zenbat jende etortzen zan radioa ikusteagatik! Inguruan ez huen ezer. (...) Ez zien tutik ere entenitzen, zergatio Morse alfabetoan huen eta etzekienak hura ezin zian entenitu. Hotsa aitzera, horrekin kontentu! Ikaragarri jendea hemen, ez baituan halakorik.

(Elkarriketaren parte honetan bere gaztaroko pasarte bat gogoratzen du)(...)Lehenago, ordun estudiantenengoan ni, 16-17 urte, zer genun bada, Fisika, Valenciako Unibertsidadeko profesore bat zan, Landerers zuen izena, haren liburu bat neukan eta ez nuen entenitzen han jartzen zituen hitz batzuk, eztakit zer eta, zer gertatuko ere, eskribitu egin nioan karta bat (atrebitu motikoa, e! Badakizu, estudiantek...) eta esaten nioan "ni estudianten naiz, baino zure liburue erosi det eta holakoa eta halakoa ez det en-

tenitzen. Beste hitz batzuekin esplikatu-ko bazenit eskertuko nizuke". Jontxo, ontzat hartu zian, aidanez gustatu, nahiz eta nere artean "etziak kasu egingo" pentsatu. Beldurre banun baino harek asko eskribitzen zian neri geroztik.

Jm.A.-- Suerte galanta zuretzat, ezta? Beraz, badakigu, bertakoa eta kanpokoak jasotzen eta ezagutzen ahalegindu behar.

Jm.B.-- Jendea ez zegok lehen bezela. Lehenago ingurukoak gintuan gintuanak.

Jm.A.-- Bai, gaur jende asko oso prestaturik dago.

Jm.B.-- Bai-bai, mundu guztia hartu-emanetan kasik hasten da.

Jm.A.-- Horrek, orduan, pertsonen arteko eta giza taldeen arteko harremanak ere aldatzen ditu. Hor lehen, bi edo hiru besterik ez zeuden zekitenak...

Jm.B.-- Gaur etxe guztietan dago. Gure denboran zer aldaketak egin diren! Jesus! Bizikletarik ere ez huan eta holaxe sartzen hituen umeak bizikleta usaiean, korrika, hortara, urrutitik ikusten bazuten bat bazetorrela, hura ikustera nola pasatzen zan! Orduan hasi berrie! "Belozipedoa" esaten genioan... Bizikleta izena gero etorri huen.

(Irrifarre egiten du On Joxemigelek eta era honetan ematen zaio bukaera elkarriketari)

Jm.A.-- Eskerrik asko hitz hauengatik, On Joxemigel!

«**G**OIERRITARRA»ri eskarrikas-ko, zeren eta beren bultzada izan ez banu Joxemiel Barandiaran apeziz eta antropoloa-goari elkarriketaldi hau ez nion burutuaraziko.

Elkarriketaren transkribapena Jon Mikel Arano itsasondotarrak egin du, eta oso ongi! Berriro, berari zorionak! Izan ere, pertsonon edozein lanetan kate batetan mailak bezala pertsona talde bat beti eman ohi da.

Elkarriketa transkribatua irakurtzerakoan, lehenik jabetu naiz Joxemiel Barandiaranek, 100 urte jaio zela betetzeko hain gutxi falta zaion honetan, osasun haundia gorputzean bezalaxe adimenean ere badaukela. Gainera, bere bizitzan zehar egin duen antzera, bere barnean, neke haundiz eta jakitate haundiagoz pentsamendu bihurtu duena, txanda honetan ere isuri digu horrenbestexeko elkarriketa hau medio.

Honen edukiaren gainean honako gogoetak egingo ditu:

1) Azken ehun urte hauetan Goierriin, eta batipat Ataungo Sangregoriotik hara begiratuta, aldaketa izugarria suertatu dela Joxemielek dioskula, honen adierazpen gailurra bere esaldi honetan maisuki bildu digularik: «Gaurko medioek ekarri gaituzte kanpotik bizi



Joxemartin Apalategi. J.M.B. bezala, Ataungo San Gregorio auzokoa eta maisu handiaren ikasle aurreratua.

izatera, kanpotik datorrenari begira», etxean egon arren.

2) Gaurkotasunaren jabe egiteko, etxekoari hainbexeko kanpokoari heldu behar diola ikerlariak.

Azkenik, behin eta berriro hauxe azaldu nahi diot irakurlerago euskaldunari zein atzerriarrari: Joxemiel Barandiaran da XX. mendean Euskal Herriko atzerlarien burua, eta garai bereko munduko atzerlari buruetakoa. Guk berari eskertzeko modurik onena, Joxemielek antropologikoki eta euskaldun legez ezagutu, bizi eta erakutsi izan duen euskal kulturazko nortasunaz jabetzea da eta etorkizunekoiei jabe arazten ahalegintzea. Ezin baita gizaterian nor, pertsona eta talde izan, bera izaterik, bestea, pertsona eta taldea ere, bera izango bada.

Zorionak eta urteaskotan elkarrekin Joxemiel Barandiaran, herritar eta maisu! Horrenbeste baita ere, zure bizialdiaren erdia eta bat konpartitzen datorren zure hiloba Pilar Barandiarani, 78 urtetakoa, zure laguntzaile paregabeakoa.

Joxemartin Apalategi
Antropologoa eta EHUKo
irakaslea



Zure eta gure ahotsak zabaltzeko erarik seguruenak **SEGURA IRRATIA** dugu. Indarberritu garenez, sail eta alor berriak jorratzera gonbidatzen zaitugu. Egunero, goizeko 8etatik gaueko 12etara.

FMko 89,2an gaude.

ARKAIKOENAK BIGARRENGOAN ERE

Zegamako despektiboak

Zegaman erabiltzen ziren eta erabiltzen diren despektiborik arkaikoenen zerrendarekin jarraituz, hemen doakizue lehenengo alean hasi genuen lanari erants geniezaiokeen beste hitz sortatxo bat. On egin!



Edurne eta Amaia Alustiza

MAGU.-- Mágue.- Alferra. Nagia. «Magu hori! Hortzak ez moitzeati, jan be re geauko hitzeke hi!».

MAKALAIO.-- Makálaio.- Haundia edo makala, animaliei dagokie bati-pat. «Neska, neska, hirekiñ etzeon jaskuntzaik, Altzokoa baño haundigoa eiñ haiz da barea baño makalagoa hago, makalaio hori!». «Makalaio hori ekarri al dezu mostradoren serbitze-ko? Ez ta oso txukun moldauko!».

MARU.-- Márue.- Mamu berezi bat, intxaur gainetan egoten dena bati-pat. Intxaur alearen azalak (sokabana) tintaz eskuak gantxituz gero, umeak harrapatzeri etortzen dena. «Baldin baite, esku horik garbitze ez paitun eunda sekulako aguadona maruk eamango au!».

MANDABEOR.-- Mandábeorra. Oso pausaje baldarreko emakumea. «Aze mandabeorra dan zuen alaba!».

MELENGIÑO.-- Meléngiñoa. Gutxi jaten duena. Mikoa. «Ai, Peru, Peru, au ex tet nai tauraex tet nai, hi bezelako melengiñoik ez tek asko eongo mundun!». «Ai Miel, Miel, ez taukezu zuk melengiño planttaik, ez hoixe!».

MENOS.-- Ménosa.- Beste batzuren artean kalitate gutxiagokoa. «Menos asko dauke arto honek».

MORDA.-- Mórdea.- Emakume baldar, gizen, tuntun... Oso hitz zabal da esanahi aldetik. «Nere begik aspalditxon ikusi duen emakumaik mordana ikusi due, atso aren ipurdik bazi-rudiñ tiñea».

MUTURDE.-- Mutúrdea.- Musaje iluneko emakumea. Izua. «Hori den musajea, gau illunen argi eiteko ona hago hi, ona. Parre gexan bat e noiz-pait eiñ beharko en ba?».

MUZIÑ EIÑ.-- Muziñ eiñ.- Edo-zeri edo edonori zaput egitea. «Neure

borondate guztiz indoabak jartzen aitu naun eta gue ume mukizu orrek muziñ eiñ e tzien ba, neska!».

OTASA.-- Otása.- Emakume axo-lagabea bere jokaera eta hizkeran. Baldarra, narratsa, utzia. Berez, bigarren pasaldiko zahagiz egin ohi zen ogi beltzari esaten zitzaion. «Kuixida-de edarreko kontue pranko behintzet, gaur e jaulki dik ire atzeti dallen emakume otasa horrek». «Emakume otasa horren lixibea ikusi ezkeo, etxea nola dauken ikusta do».

PAKEURRUTI.-- Pakéurruti. Hitzak berak dionez, bakea beregandik urruti duen pertsonari esaten zitzaion. Xexiantea. Azio txarrak egiten dituen. «Bar gauen tabernan hasarrea izan dala al dion? Ez ten harritzekoa pakeurruti hura an baldin bazeonan».

PITRIÑ.-- Pitríñe.- **ZIZ-TRIÑ.**-Zíztriñe.- **ERKIÑ.**-- Erkiñe. Kaskarra. Txikia. Eskasa. Gauzei ere badagokie. «Igazti aurtena ez tik irrazi aundik eiñ landare pitriñ horrek». «Tolosako zuen illoba hori zierro pitriñe a e?». «Aurtengo intxaurrek ondo pitriñe ituk motell!».

SALOKERIÑ IBILLI.-- Salókeriñ ibilli.- Beti jan eta jan asmo ibiltzea. Arrapastaka jatea. Ondasunak bereganatzeko inikrnu gaiztoa izatea. «Tripa kontue ta salokerie besteik ez tauke gure Mattolok, gaur e bi txuleta jan ditu». «Han tzellen ura, peria jun da salokeri baten, hango antxuma da ardi danak etxea ekarri nahien».

SASTARA.-- Sastárea.- Zaztara/zaztarea ere esan ohi zen. Beti neskakoskor edo emakumeei zuzenduz. Neskakoskorrari bada, sorgintxo edo geldikorra; emakumeari bada, pikara edo tranposa xamarra. «Gue etxe hortan txikiena zeok zaztaraana, oaingo itxuraz sasiti ollok etatzeko mukoa

izango ek». «Atzo periñ ijitoandra sasarata batek sartu ziek laukoa! Sitsek jokatxo txapela etziek pa saldu!».

SORAIO.-- Soráioa.- Gutxi irabazten edo medratzen duen ganadua. «Bai soraioa! Nahi aña pentsu emanda re ez tek gizentzen!».

SUPERGA.-- Supérgea.- Emakume garratza, harroa, lotsagabea, handikia. Marisuperga asko erabiltzen zen. «Hamaika emakume superga bada mundun!». «Alle, alle! Etzeon mundu txarra i bezelako supergak gelditzeko!».

TAKAR.-- Tákarra.- Zakarra. Latza. Gauzei ere badagokio. «Nola goxauko ik ba semea emakume takar horrek?». «Bai takar dauzkiala eskuk!».

TAKIRRI.-- Takírrie.- Herren dabilen pertsonari zegokion. Tarraka xamar dabilenari edo pausaje ezseguroa duenari ere bai. «Herrenka erranka ikusi haut gaur goizen, aspaldi hontan asko takirritu aiz geo!». «Hor dijo oaiñ e harri guzikin estrapuz eiñez takirri hori!».

TXALDAN.-- Txáldana.- Gatzik gabeko, fundamenturik gabeko emakumea. «Txikitan e txaldana zian da oaiñ e alaxe ek Pilar!». «Emakume txaldan xamarra zala antz emanda neonan baño, ain ganoragabea zanik e?».

XINGLE.-- Xínglea.- Siplea, xumea. «Bai aulki xinglea ekarri deuna oaingo hontan!».

XIXERO.-- Xixéroa.- Lapurra. «Xixero horik besteei arrapautakokiñ bizi die!».

ZANTZAN.-- Zántzana.- Emakumezko ajolagabea, utzia. Emakume publiko zentzua du. «Ba al ekiñan Iturriberriko Mielño sasikoa zala?». -- Ez neon gor eiteko baño bere ama neskatan, artazuriketati irten zai, hotako gizon alprojak eoten zitunanan hotsa izan tziñan, zantzán xamarra zala ta.».

ZARTAN. --Zártana. - Emakumezko baldarra, baita axolagabea ere, baina zentzu fisikoa gehiago jokaerei begira baino: jakzera, ibilkera... «Emakumea emakuma denak: motoa tente, mantala garbi ta sutoñe jaso; bestela zartana dan señaie garbie».

ZEKEN. -- Zékana. - Zurra, zimurra, dirukoia. «Panaderiko Alejandro dan zekenakiñ, ogie de balde emango dialakon ez aiz pa eongo? Horrek oaindio diruk paita zulon gordetzen zituk!».

ZIMOSOIA. -- Zimósoa. - **ZIPOITZ.** -- Zipóitze. - **ZITAL.** -- Zitala. - Hiru hauek batera jartzea erabaki dugu oso esanahi antzekoak bait dituzte. Burugogorra, sentimentu kaxkarrekoa, erraz haserretu eta nekez barkatzen duena, tema gaiztokoa. «--Bate ez takianen, gizon prestun bat ingurau ete don gue Maixpak. Honen aurreko andragaie pujau zionai e hiltzeko desapióa einda emen dauke; sugagorrie baño zitalagoa izan behar do. --A, bizik jayoik gare ordun, tamaña hortako gizaje zipoitze etxeatzen badiu!. --Ba, larri ibili. Nik aitzera dianez, ta atter odolekoa bada, zimoso purrukatur!».

ZIRTZIRIKU. -- Zirtzirikue. - Geldikorra, bihurria; haurrei dagokie eta batipat familia giroan. «Epístiku» hitzak ere esanahi berdina du. «Nun ddoan ba lñaaxto, sutan gatza baño geio geatzen ez tan motiko zirtziriku hori?».

ZUANKA. -- Zuánkea. - Hanka lueza. «Zuanka horrentzako oya luzau beharko zue!».

Handik eta hemendik

San Nikolas Eguna Seguran

Gaur egun, Abenduak 6, San Konstituzio Eguna bezala ezagutzen baldin bada ere, segurarrok betidanik San Nikolas Eguna ospatzen dugu. Inon ospatzen ez den bezala ospatu ere. Herriko mutil bat obispoz janzen da. Aurtan Garikoitz Oiarbidek izan du aukera. Jantzi ez nolanahi ere, obisopotxo bati dagozkion apaingarri guztiaz osaturik, alegia tunika, kasulla, guanteak, buru gainean mitra, eskuan bakuloa, eta zintzilikarioak e.a. Eliza abiapunturik bezala harturik herriko ume alajera guztia hor dihoa obispoaren atzetik, kantari eta bide batez eskean.

Azken 50 urte hauetan gure San Nikolas txikia egun seinatu honetan oinez ibili izan baldin bada ere, duela 50 urterarte zaldi gainean pasiatzen omen zen herrian zehar. Horrexegatik aurtengoaren antolatzaileek, ohitura zaharren sustraletara jo nahi izan dute eta gure obisopotxo zaldian ez, baina pottoka gainean pasiatu zuten, nekato-mutilen kortejoa atzetik zemakielarik, behingoz bederen herriko agintaria bihurtuz. Gure haurtzaroan, egun honi gabon usaia zerion, eguberrien gertutasuna adierazten zigun. Orduan, mandarinak, sagarrak, intxaurrak edota galletak botatzen zizkiguten leihotatik; orain, aldiz, hauez gain gozokiak eta dirua ere botatzen diete, ez buru eta ez anka duen bertso bat kantatu ondoren. Baina

ikusgarriena kale-zoruan gertatzen den iskanbila izan ohi da, leihotatik botatutako denak hartu nahi eta nahaspila horretan biziak edo eta bihurrienak laster betetzen du poltsa. Ohitura hau nondik datorren ez badakigu ere, esate baterako, Holandan, egun seinatu honetan umetxoei jostailuak banatzen omen zaizkie San Nikolasen ohoretan. Seguran egindako bideo hau bideoz grabatu duenik ere bada, alde batetik Euskal Telebistakoak, eta bestetik Holandara eramateko grabatu zuenik ere bazen, hemengo ohituren eta Holandakoen berdintasunak eta diferentziak ikusteko behar bada.

Lehentxoago esan badugu, inon ez bezala ospatzen dela San Nikolas txikia Seguran, pentsatzen dugu Errusian ere ospatuko zutela San Nikolas eguna, bertako patroia omen da eta, Perestroikaren aitzakiz besterik ez bada.

Hona hemen Seguran abesten den aipatu bertso hori:

San Nikolas txikia
gure ganbaran hazia

gure ganbaran zer dago
haren gona gorria

bost eta sei bakailau jale
bost eta sei hamaika

txorizorik ez baldin bada
berdin dela lukainka (bis)

LAIOTZ

ERAKUSKETA
SUKALDEKO TRESNAK

Alpe


Mariaratz, 4

: 88 86 84

Urdaneta, 68

20200 BEASAIN (Guipuzkoa)

20240 ORDIZIA (Guipuzkoa)



EGUZKI

Inprimategia

Nafarroa Etorbidea, 9

Tfnoa: 88 94 82

20200 BEASAIN

URKI KOMERTZIALA

• Pintura gabeko errotulaketa
eta ordenadorezko diseinuak
neon, plastiko, inoxidable, latoi, e.a.eko
errotuloak

ERAKUSKETA ETA SALMENTA:

Domingo Unanue Enparantza, 2 | Telefax: 88 93 20
Telf: 88 86 71 | 20240 ORDIZIA

ETXE - ALAI JATETKEA

☎ 88 52 55

20248 ALTZAGA
(Gipuzkoa)

ANTZERKIAZ BERRIKETALDIA

«Ama begira zazu» antzezlanaren jendeon ahotan eta parretan

Mikel Garmendia ordiziarra, “Kutturru” bezala ezagunago, eta Joxan Soroiz legorretar aktoreak harrapatu genituen “in fraganti” Lazkaon emaniko funtzioaren ondoren. Esan, taulakoak jaso aurretik eta gero ere, afari eder bat bitarteko, kontu eta txiste pikante mordoa astindu genuela elkarrekilan. Hurrengo elkarrizketalditxo hau eman zigun goierritar tandem honek. Eta guk, traizioan, zer egin eta zuei eskaini. Okurrituko balitzaie, zer ez lukete egingo? “Gordoyflako” edota “Tipycoll” bezain pareja famatua bihurtu zitekeen honakoa. Eta kasu horretan, zein morroi eta zein nagusi? Eskura daudenez, joan funtziora eta ikusi!



Goierritarra.— Hausteko, nondik datorkik izen xeble hori, Kutturru?

Mikel Garmendia.— Nire aitona-ren baserriaren izena da, ikaztegieta-koa, gaurko egunean erorita dagoen baserriarena. Aitona Ordiziara etorri zen eta arraina saltzen jarri zen. Nire aitak gero arrainarekin jarraitu zuen. Nire aita Kutturru izan zen, ni ere Kutturru naiz eta nire segidan etortzen dena Kutturru-txiki izango da. Kutturrutarron izena hor geratuko da.

G.— Zerbait kontatu iguk hire traiektoriaz, gaztetan egin huen antzerki txiki hartaz.

M.G.— 18urte nituela juntatu ginen talde bat eta Alejandro Casonaren «La barca sin pescador» obra euskaraz jokatzen genuen: «Txalupak jaberik ez»; zuzendaria Bittor Lete itsasondotarra izan zen. Nahiko arrakasta izan zuen, bi funtzio egin genituen, jendea majoretorri zen. Orain dela 26 urte izango da horrena. Gero, 37 urte nituela ikusi nuen Eusko Jaurilaritzak antzerki eskola bat irekitzeko asmoa zuela. Nik betidanik izan dut zaletasuna horretarako eta azterketara aurkeztu nintzen. Hartu ninduten eta gaur arte.

G.— Eta hi Joxan, komentatuko diguk nolaz izan huen heurrearena, farandulan sartze horrena?

Joxan Soroiz.— Ni Donostiara joan nintzen bizitzera, eta han «Xaribari» rekin hasi nintzen, Pako Sagazazu eta jende guzti horrekin. Une hartan Matamoros zegoen eta aldi berean Beasaingo Ikastolan egiten zuen lan honek, irakasle bezala. Eta harekin behin trenean nindoala berak «Xaribari» obratxoa zeukala eta bat eta beste hitzegiten, eta, beno, igoal agertuko nintzela ikustera zer egiten zuten. Era horretan hasi nintzen, 24-25 urte neuzkala. Gero Lizeo Sto. Tomasen hasi ginen klaseak ematen, e.a. Ni ez naiz Antzerki Eskolatik pasa, espektakuloan zuzenean hasi nintzen. Botatzen dut hori pixkat faltan, Antzerki Eskolatik pasa ez izana, alegia. Zinea egiten-eta ez naiz aritu. Kutturru dugu hortan buru.

G.— Telebista eta zineman agertzen zarete, baina jendeak dioena: ba al dago hortik bizitzerik?

M.G.— Pixkanaka-pixkanaka ari da hori ere lortzen. Hemen “industria”-klase hau nahiko berria da. Esate baterako, azken 7 urteotan hartu dugu gorputz pixkabat; gauzak kontsolidatzeko, heldutasuna hartzeko urte gehiago behar dira; beste zenbait herritan, Kataluñan kasu, askoz ere bizitza luzeagoa dute. Orain jendeak serio-xamarragoan hartzen gaitu, ez da hasieran bezala, ez gintuztela ain-

tzakotzat hartzen. Bide honetatik gero eta hobeto ari gara, ogibide bat lortzeko moduan gaude; hortik bizi gara, gaizkixeko edo hobetoxeko... gustoko lana egiten dugu gainera eta hortik bizitzea eta egunero jatea lortzen dugu behinepein.

G.— «Ama begira zazu» montajearekin molde zaharreko antzerkiora eta kostunbrismora bueltatzen garela dirudi. Hemengo egia-antzeko gauzetara, ezta?

M.G.— Ez da linea markatu bat, esperimentu bat baizik, gu arlo guztietan ibili gara eta, beharbada, pito guztiak ikutu ditugu. Honek ez du esan nahi bide honetatik jarraituko behar dugunik, antzerkia egiteko modu asko daude eta hau bat da, zerbait puntuala beraz.

J.S.— Orain arte aritu gara talde handiekin lanean, «Tiantaka» e.a.-ekin: joaten zara kristoren montajearekin, egun osoa behar duzu hori montatzeko, montatu/antzeztu/demontatu, eta azkenean 20-40 lagun, eta arre! Azkenetako, pentsatu genuen hura ez zela posible eta herri txikietara joaten hasi beharra zegoela; nola azpiegiturarik ez dagoen herri txikietan montaje handi horiek emateko, bada, hortik erabaki genuen montaje txo sinple-sinple bat egitea neurri mi-



nimoekin; gero neska hauek, Kontxu eta Elenek, gidoi hori egin zuten, gurekin konektatu eta bengal! Ez genuen espero hainbesteko arrakastarik izatea. Beno, datorrela datorrena...

G.— Goierri probaleku majo askoak izan dituzue, Itsasondo eta Lazkaon behintzat.

M.G.— Hemendik kanpo ere bai, Araban egon gara, Bizkaian eta baita Nafarroan ere. Beldurra geneukan: beharbada zenbait "gag" eta pasadizu ez dituzte erabat harrapatuko gipuzkeraz izatean, baina kontestua bai eta erantzuna berbera izan da.

J.S.— Mikelek eta biok barru-barruan zerbait daukagu sartuta: Goierri antzerki aldetik nahiko utzia dago; obra honekin ez dugu herri bat ere utzi nahi bisitatu gabe. Itsasondo eta Lazkaoko saioak izugarriak izan dira, esplosioa jendearen aldetik.

G.— Ez da gaurkoxe kontua, lehen ere izan da hemen antzerkizale-tasunaren loratzea. Esan liteke gaurko gauzeekin lehengo antzerki zaharraren kutsu bat lortu duzue-nik?

M.G.— Garai batean bazegoen Ordizian talde bat "Laguntasuna" zeritzona, ni gaztea nintzela partaide asko Zaldibikoak ziren, Mikel Arrese horien artean. Ordiziarrek Joxe Lonbide, Julen Iturrioz, Pepita Lasa. Itsasondoko Imanol Iturrioz... Barrutia eta Toribio Alzagaren antzerkiak egiten zituzten herrietan herrikoak, jendearen aldetik harrera majoa lortuz. Eta, beharbada, gaurko istorioekin edo gaurko eran egokitutakoekin, kutsu horrekin, jende helduari bere gazte denborako antzerkia gogorarazten diogu. Garai batean, Goierriko herri gehienetan antzerki talde bat baze-

goen, urtean emanaldi bat edo bi emango zizutzenak eta antzeztokira herri osoa joango zen.

G.— Bada, hemendik aurrera izango du jendeak parada, Balarraina, Ordiziara, Legorretara eta Beasaina joatekotan zaretenez. Honekin lotuz, bertako espresio pilo bat entzun ditugu zuen ahoetatik. Gidoilariak portatzen utzi dizute?

J.S.— Bai, bakoitzak gere hizkeran egin dugu. Nik Legorretar bezala hitz egiten dut, nire jiroekin, e.a. Norberak bere erara testuak adaptatzeak ematen dio bizia eta saltsa honi.

M.G.— Guk espero genuen jendeak hori onartzea baino ez da izan hori bakarrik, jendeak aitatzen du bazuela gogo horrelakoak eszenario gainetik entzuteko. Nik uste, arrakasta lortu dugula ze aktazio bakoitza bukatu ondoren, baten batekin juntatzen gara tabernan-edo eta jendeari gehien gustatzen zaiona dela guk lauen artean egiten ditugun 28 pertsonaje diferente horiek, jende askok edo gehienak behinepein, bere bizitzako gertuko pertsonajeekin identifikatzen dituela. Ustez, horretan datza antzerki honen esitoaren parte handi bat.

G.— Bukatzeko, pasadizu bitxiren bat kontatuko diguzue...!

M.G. eta J.S.— (Ahobatez eta korrikaran) Bai, norbaitek uste izan du 28 pertsonajetxo horiek bene-beneta-koak zirela eta penatu da bigarren aldian batean atera ez delako bere gus-tokoa!

M. Aramendi
A. Zugasti

EROSKI KAFETEGIA

Pintxo hotz eta beroak
Eguneroko bazkariak

Tfnoa: 88 83 31

ORDIZIA



AUTO ESKOLA

TELEFONOAK:

Lazkao: 88 72 99

Beasain: 88 18 96

GIPUZKOA



construcciones
SUQUIA, S.A.

HORMA
PREFABRIKATUAK

Txindoki Etxea
Tfnoa: 88 58 00/04
ZALDIBIA

**GOIERRIKO BERTSOLARITZAREN ZELEBRIDADE BAT,
BERE GARAIA 12.000 BERTSO-PAPER ERE ATEREA**

‘Pello Kirten’: «Bertsotan arrazoituz joan bear da»

Betidanik ezagutu izan dugu Joxantonio Luluaga, «Pello» eta «Pello Kirten» bezala ezagunago, bide bazterretik oinez, Legorretatik Ordiziarako bidean. Euskara eta gaztelania nahasturik, berak eginiko «sermoi» okurrente bat ere bada grabaturik eta gorderik Itsasondoko etxe batean; ezagunak dira, bestalde, sasoiari Bahamontes ziklista ospetsuari jarri zizkion bertsoak eta orduan ibili zituen komeriak.

Izan ere, nor edo nor izan bait da Pello Goierriko bertsolaritzaren mende honetako historian. Nolabait esateko, gaurko bertsolari goierritarren aitapontekoa izan ez bada ere, bai ordea beren «osaba» xelebre eta maitagarria.

Ordiziako zaharren egoitzan aurkitu dugu, bere akabua hurbil atxean somatzen duela eta mistikak jota. Berehala duela azkena eta berehala duela. «Jaungoikoa gañetik daukagu, e! «Jaingoaren Justizia» zioten gure garaiko mixiolarik.

Baina horrelakoak ez direla esan behar esanda eta berez alaia izaki, bertsotan eta berriketan ere aritu zaigu. Bere kezka nagusia, ea grabagailuak hartzen ote duen esandakoa. Baietz. Euskaratik erdara graxioxo batetara salto egiten du tarteka, bertsoak, txisteren bat eta beste batetarako geratu beharko duten bi kontakizun eder eman dizkigularik, luze joko bait luke bestela.

Bere aurrean aurkeztutakoan, «Nere edadera allatzerako eskillara asko pasa bear dezu zuk», esanez agurtu gaitu eta elkarrizketa bukatu, berriz, goiari ez baño egiñari eutsi bear zaiola, gaineratuz aurpegi txarrik ez digula jarriko baldin eta berriro bisitatuko bagenu.

Orendaingo «naturala» da jaio-tzez, Legorretan urte askotan gaudu tratante baten morroia izana. Orain 84 urte jaio eta mutil zahar geratua. Bere etxean ez zen bertsolari girorik. Berak bertsu ugari jarri izan ditu ordea. «Attepontekoa nun bertsotan ibili izana, berak jaso niñun. Andikan bendizio pixka bat ar-tu sobrare. Gero, estudiantu egin izandu det asko nik bertsoa. Ari naitzela neronek antzaman. Antzaman-antzaman».

Jose Antonio Luluaga
Pello



— **Pello eta Pello «Kirten» deitu izan zaizu, baina...**

— Jose Antonio Luluaga, bigarrenkoa Amenabarro naiz ni. Pello esaten ziatek emen geienak, bertsolarie naizelako ta ditxo. Jarri zienten-da!

— **Eta, nola jaio zinan bertsoen mundura?**

— Nere anairik inor ez zan bertsolaririk. Ni bakarrik sortu naiz. Afizio aundie izan det. Bertsolarik aitu bertsotan eta gustau egiten. Da nik bixta ona neuken garai baten eta gero eskribitzerakoan letra oso klaroa det, ona. Asi nitzen, ba, eskribitzen bertsoak, nerone. Aurretio itxura pixka bat artzen nien, donun biltzen baitie bertsoak. Zortziko txikin donu altu eta gañeako bertsoak beste donu klasea du. Donuko klaseen eskribitu eta... Emen, Billafrankako erri ontan zegoen bertsoak asko irakurtzen zituna. «Gau-txori» tabernako nagusiaren anaia bazan eta ure. Nik egindako bertso paperak eman nizkion da, «Bertso onak dituk ok, baño emen akats txiki bat zegok. Emen gaiek zebiltzek nastuta. Onak gai au ez baño beste gaie eskatzen dik». Lagundu niñun bapo!

— **Orduan ez zan hemendik bertsolari askorik, ez da hala?**

— Ez askorik! Orain bertsoak estudiantzen ari die. Seminariotik-eta bertsoak erakusten-da. Berezkua bear du sortzea bertsolarik leena. Txirritata-izan zien bezelaxe. Xenpelar emen sortu dan obena. Errenteria-rra. Arek ditu bertsoak, arek! Ze bertsolarie zan! Beida, euskera ederren esango dizkizut. (Puntu honetara ailegaturik direnak eta ez direnak bota behar dituela grabagailuarentzat!). Luxia aizkolariari ere nik aterra nizkion bertsoak. Luxia eta Gartziaarena naparrak jokatu zuen apustu izugarrie. Bi bertso dauzket nik go-goan arenak. Gañekoak aaztuak. (...) Lau milla bertso-paper saldu nitun bai jenero ortatik, Luxia eta Gartziaarenaren gizaldiko apustuaz. Amabimilla bertso-paper ere aterea naiz. Inprenta bazan leenago ere Beasainen, eskribitu eskuz, letra garbira pasa eta apaiz bati kopiarazi. Ortaz zenbat denbora dan? Askoa, askoa! Gerraurretik..., ondo leenago. Txaketa bat banun, berdea, bi poltsillok puntaño bete, olakoxeko paketeak, eta perietara jun da saltzen ibili nerone; tabernata junda-ta, lan asko egin bear du. Nerone bakarrik. Ostegunetan Hernanira joaten nitzen, egun ortan egiten baitzan perie ordun. An arrapazka eta taberna baten sartu nitzen bein da leporaño

jendez bete. An asko saldu nun. Tabernatik irten nitzenerako kanpo-
ra, gorbata eta traje ederrekiko ka-
ballero bat, arako artan bezela, eta,
«Zer dabiltzkizu poltsillotan paper
orik? Atoz onea!». Bertso paperak
nitula, Luxia aizkolariari aterata-
koak. Jun nitzen da bost eskatu ziz-
kidan. Eman nizekion da: «Bertso
ederrak die ok. Zeñek egin ditu, Ba-
serrik?». Ezetz, nik egiñak zitula.
Eta aiek egiteko talenturik ba al nun.
Baietz, eskolaik ez nula, baña arta-
rañoiko talenturik baietz. Eta ea bera
zein zan bada, nik, atrebentzikin.
Bera Donostiko abogadu jauna zala,
baño abogadu izanagatio olakorik
egiteko talenturik etzeukala. Ber-
tsoak egiteko poeta izan bear baita,
zionez. Naiz eskola aundie euki, or-
tako diña ez. Abogaduk eskola aun-
die bear du. Uztapidek, il zan, ez
omen zun eskolik.

— **Bertsolari zahar guzti horiek
ezagutuko zenituela, ez dago esan
beharrik.**

— Ene, ene! Uztapidekin bertso-
tan aritua naiz (tabernan)! Lasarte-
kin ere bai, Legorretan, «Jain-
ko-ene» esaten dioten artan. Uztapi-
dek ere esan zun: «*Ixkiñotan gutxi
dizkiagu i bezelako bertsolaririk*».
Ederrak bota nizekion, «Lazkao-txi-
ki» ere an zan. Gerozko kontuk dira.
Lazkanok ere bertso bat miñ-antxa
bota zidan eta bueltan bota niona
ikeragarrie. Konparazio baterako...
(eta saioak eta gogorapenak egiten
hasten da, bertso dextentea boteaz)
(...) Olatsu kantatu nion donu ede-
rrean. Bai gustau Uztapideri. Uztap-
pide errespetuzkoa zan. Errespetu
aundikoa.

— **Baina ez omen ziran denak
enbor berekoak. Pikardia ba
omen zen.**

— Batzuk, bertsolariak izaten dira
gaizki-esaka aguro asten diranak.
Gaizki esaten arrazoaia galduta. Eta
ori ez du egin bear: arrazoiari jun
bear du bertsoan. Aizu, puntuk ere
baditugu. Baserri ogei urtetan egon
zan kanpeon. Ezagutzen dezu? Aun-
di bat. Bertsoan doktorra zan ura.
Konkurtsua egon zan urte baten, na-
parrak, frantzesak, gipuzkoarrak eta
bizkaitarrak, danak ziran. Puntuta-
ra. Puntua jarri omen zion Zepai
idiazabaldarrari, bertsolari on askoa
zan Zepai. «Ze egiten dek Zepai,
mutil zaartu aiz-ta». Iru puntukin
osatu bearrekoa. «Ze egiten dek Ze-
pai, mutil zaartu aiz-ta/ ogeitazortzi
urte dauzkat, oraindik goiz da/ antxe
dizkiat koñata ta aizpa, egon zaite
lasai ezkonduko naiz-ta», Zepaik
bueltan. Zepai Baserri eta oiek baño
obea zan puntuk ematen. Onena.

(Besteenak ez baino bereak, bere
bertsoak nahi ditugula esaten diogu.
Ea gogoan ba al duen besteren bat;
«Aparatua jarri al dezu?», galdetu
ondoren erlijio kutsu duen bapateko
bertso eskas samarrean sartzen da.
Konturen bat ba al duen galdetuta-
koan, berriz, berak kontua besterik
ez duela eta bere bizitzako pasadizu
pare bat ematen digu aditzera. Guz-
tiz interesgarriak. Gerrakoan ispioi-
tzat hartu dute Errenterialdean eta
bere bizitzaz etsiturik heriotza hurbil
ikusi zueneko. Hilko omen zutela!
Bizitza ematera zihoala eta hura es-
tularria! Esan bezala, beste bateta-
rako kontuok).

— **Aizu, Pello: eta gainantzeko
zure bizitzan zeharko lanbidea,
zer moduz?**

— Morroi pasatu ditut nik urte as-
ko Legorretan. Bertako Goia tratan-
tea ezagutzen dezu? 20 urte arekin.
Area juteko beste 19 urte baserritan.
39 urte morroitzan. Asko da gero!
Zer moduzko morroia nitzen? Obe-
netakoa. Goiak matte niñun ni. Ura
izango zan Gipuzkoako bigarre-
na-edo ola tratanteetan. Millona-
rioak eta etxek dituztenak. Ganadue
barra-barra. Dirue-dirue gañen-da,
lana?! Jesus! Lana ikeragarri: zal-
dik, astok, beiek, idik... zer ez zan
an?! 70 txerri-re bai, aparte txerri
gaztek. Ni morroi bakarra. Nagusia-
ren ondoren nebillen bein lanen da
kanpoko batek esan zion, beiak
erostera junda, nagusiari: «*Au zer
moduzko morroia daukazu?*». Eta
nagusik: «*Bazegok onen bearra!*».

— **Larritasunak kontatu dituzu,
txiripaz baina oraindik bizi zu!
Eta, zer moduz bizi gara?**

— Urteak daramazkit erresidentzi
ontan. Emen ondo. Leenagokoaren
aldean...! Leenago lan asko, baño
osasun ona izan det. Gero, klase bi-
zie atera gera. Atte nun nik oso-oso
bizkorra eta aren klasea det nik.

Komeria hauek eta beste batzu
dantzatu ondoren aldendu gara Pe-
llorengandik. Harek eta honek,
goierritar bertsolariek ondo asko
ezagutzen dutela dio. «Geiagok ere
ezagutzen naute!». Memoria bikain
askoa duela garbi erakutsi digu eta
eskerrak eman beharko dizkiogu he-
mendik egin duen guztiagatik.

J.M.A.

DEBALDEKO IRAGARKIAK:

LANA:

— Orduka lan egingo lukeen andre
erresponsablea. 88 37 73 tfna.

— Esperientzi handiko 40 urtetako an-
dre batek lanak egin eta umeak zain-
duko lituzke, hobe goizetan. 88 48 07
tfnoa.

— Neska gazte batek gusto asko egin-
go luke lan 15,30tatik aurrera. 88 06
82 tfna.

— Atelehenetik ostiralera bitarte, gai-
xoak zainduko nituzke. 88 77 62 tfna.

— Egingo nuke lan orduka. 88 16 93
tfna.

— Neska erresponsablea etxeko lanak
egin eta umeak zaintzeko. 88 59 56
tfna.

SALEROSKETAK:

— Oso arraza oneko ehiza txakurra
saltzeko dut. 88 77 62 tfna.

— Korredore-bizikleta salgai. 48 taila-
ko (10-13 urtekoentzako) Orbea. 88
40 39 tfna.

— CADY moto bat salgai. 88 16 49
tfna.

— nahikoa egoera oneko 96 bajutako
akordeoia zure esku: 88 94 75 tfna.

— Trikotatzeko makina berri berria
salgai atenditu ezinagatik. Artilea eta
aparejuak debalde. Sanperio 5-3-ekz.
88 62 00 tfna.

— GULETI Trikitixa salgai. 80 13
93 tfna. (20 ordutatik 22tara).

— Poket instamatik puntu gorriko fo-
tografi makina ia berria salgai. 5.000
pzta. 88 95 40 tfna. (14,30-15,30/
20,30-21,30).

— S.C.H.paralela eta «franchi» erre-
petidora salgai. 88 52 19 tfna.

— OKASIOA: KOTXESILA salgai,
«Arrue» modelokoa, egoera onean eta
gutxi erabilia. Salneurri interesgarria,
12.000 pzta. 88 48 36 tfna. Beasain.

ETXEBIZITZAK:

— Pisua salgai Lazkaon. 88 72 93
tfna,

— Zaldizurretan pisu bat salgai. 88 60
12 tfna. Beasain.

AGURRAK:

— Gogaikarria bihurtzen ari zatzaiz-
kit, joan zaitez putzak ferratzera. Bea.

— Lerdea dariola naukazu. Estatuaren
hatz altxatuaren kerizpean espero zai-
tut eguzkiaren azken izpiak bat. Goie-
rritarra eramango dut besapean. Ro-
mu.

— Nik emandako sustoaz ez duzu bu-
rria bost egunetan jasoko, elkeabisa-
noestraidor. -Pintti, desesperatuta na-
go zugatik eta bermouth bat eta azei-
tuna beltz batzu pagatuko nizkizuke
egunean behar adina aldiz, Urdinen.
Nikolas.

Angel Glz. Katarain: «Sona ez duen musika-taldeari lagundu behar zaio»

Angel Gonzalez Katarain ordiziarra nahikoa ezaguna da musikaren arloan, musikagileen artean batez ere, ez hainbeste entzule soilen artean. Angel musika-ekoizlea da IZ disketxean. Urte dezente eman du lan horretan eta, horrenbestez, ondotxo ezagutzen du Euskal Herriko musikagileen egoera. Horixe izan da bion arteko hizketagaia, eta Angel bera, noski.

Egia esan, ekoizketa-lana zeri esaten zaion ez nekien eta lehenik horixe argitzeko eskatun nion Angeli: «Disketxera musika-talde bat egin duen lanarekin etortzen zaizunean, lan hori argitaratu eman aurretik, besteak beste, entzun egin behar duzu, eta konpondu beharrekoak konpondu. Eman dezagun talde batek era bateko batera darabilela kanta bat sortzeko, eta ekoizleak kanta horretan, edo kantaren zatiren batean, bateria horren ordez soinu desberdineko beste bat erabili nahi duela... Orduan ekoizlea eta taldearen artean konponbidea aurkitu behar dute». Eta batzuetan konponbidea aurkitzea ez da lan erraza izaten ze taldeak ez bait du oso atsegin norberak egindako lanean inork hatzaparrik sartzerik: «Ez, ez du nahi izaten. Batez ere taldea hasiberria bada. Musika-talde hasiberriek, normalean, ez dute ondo ulertzen ekoizlearen lana, eta horrelakoetan zailagoa zait nahi dudana musikariei azaltzea. Eskarmentu handiagoko taldeekin errezagoa da».

Non jo? Horra hor koxka!

Musika-talde batek ospea lortu aurretik aldapa asko igo behar ditu eta arazo askori egin aurre. Esaterako, entseiuak egiteko tokia aurkitzea lan gaitza da, eta toki hori musika jotzeko egokia izatea gaitzago: «Tokiak ez daude musikarako behar bezala egokituak, musika-tresnak gares-tiak dira, talde hasiberriek musikari buruz ezer gutxi dakite... Horregatik, eta ekoizleak ere badu zeresanik, taldearen egoitzan entzuten den



musika eta talde horren beraren diskoak entzutea nahikoa desberdina da askotan».

Angelek dakien guztia arituaren arituz ikasi du eta musika-taldeek ere halaxe ikasi beharra dute, ibiliaren ibiliaz: «Joan zaitezke Kontserbatorio-ra bertan irakasten dena ikastera, baina Kontserbatorioa oso urrun dago musika kontuan kaleko musika-talde hauengandik. Eta musika-talde hauek beren kasa ikasi behar dute. Eta musika jotzeko era desberdin hori irakasteko gauza den jende mordo dago, langabezian. Eta arazoa ez da dirurik eza, diruari etekina nola atera baizik. Oso erraza da sona duen talde bati laguntzea; ez duenari lagundu behar zaio, hasiberriek izan dezatela beraien ikasi nahi dutena ikasteko

aukera... Oso normala da talde baten musika-tresnak beste batek erabiltzea, eta deskuidatuz gero taldeen arteko ezinikusiak gerta daitezke».

Disketxeak eta musikariak

Normalean taldea joaten da disketxera, ez alderantziz. Eta disketxeak, hemen eta Jeku guztietan, eskaini zaion produktua salduz irabazi onak izango direla ikusten badu, lagunduko dio taldeari: «Jokaera hori nabarmenagoa da Madrilan eta Bartzelonan hemen baino. Hemengo disketxeak saiatzen dira kalitatezko lanak plazaratzen, batez ere folk arloan, nahiz eta ikusi talde horri lagunduz ez dutela diru aldetik irabazi handirik

izango... Esaterako, taldeak euskaraz abesten badu, eta kalitate apur bat baldin badu argitara ematen da. Normala iruditzen zait euskaraz kantatzeagatik laguntza gehiago izatea, ez ordea, euskaraz kantatzeagatik, eta horregatik bakarrik, talde bat erderaz ari dena baino hobea dela esatea. Hala ere, esan behar kanta asko ez direla plazaratzen».



Argazkilaritza ere bai

Angel 10 urte zituela hasi zen argazkiak ateratzen, baina IZn sartu zenean utzi egin zion argazkiak ateratzeari eta, azken boladan, berriz heldu dio argazkilaritzari. Musika-taldean diskoen azalak ere egiten ditu Angelen: «Batuetan taldeak ez daki diskoaren azalean zer jarri eta zuk egin behar duzu guztia. Beste batuetan taldeko partaide guztiek atera nahi dute azalean eta, orduan iristen dira komeriak, horiek dira egiten azalik zailenak ... Zenbait talderen bideoetan ere hartu dut parte, umeentzako bideoen bat ere egin dut, Eusko Jaurlaritzarentzat ere bai...»

Baina Angeli batez ere bizitzea gusztatzen zaio: «Gauza askori esan diot ezetz, aisia izan nahi dut eta...».

Jon Imanol Iturrioz

Goierritarroi eta Kepa Korta jaunari:

Ondotxo dakigu zer dagoen: euskaragatik inork gutxi ezertxo ere egiten ez duenean (zerbait galtzeko zorian dagoenean are gutxiago, zerbait irabazteko daukatenean salbu), ez duzue gutxi egin ia egin duzuenarekin, neska-mutilok!

Ez nauk/n luzatuko, zorionak eman behar atera zaizuen ikusita. Ea eusten diozuen *Goierritarroi*, lehenengoaren linea gustatu zaigu, egiaz, eta izango al du ibilbide ona!

Beste alde batera joaz, Korta jaunari zertxobait edo bi. Denok zekiagu, nahiz eta aldizkariok izan duten gaia ez aipatzeko delikadeza, zernolako era ziztrinez lortu huen hagoen eserleku beroa okupatzeko eskubidea (eta hori bai okupazioa!); heure herriko gehiengoaren nahiari eta ordiziar gehiengoaren ordezkariari farre egin eta azpikeriren baten bidez usurpatuz. Bere garaian aski klarki geratu huen.

Ez gaituk oso urrutikoak eta, nor engainatu nahi duk? Ez iezaguk ziria sartu nahi izan. Dena ondo doa, mundu guztia da ona, hainbeste ate, beste hainbeste maratila, beste horiek ez

izanez gero; izan ere horrela da, antza, dagoeneko hain merke sinbologizatzerik den eta logotipo berriak hainbeste maite dituen Ordizia horretan: HB versus gainantzekoak; eta hontara gatzelarik, ze arraiio da Ordiziako inguru ez biolento eta ez nuklearra delako matraka hori, *koartelak* Granjako mendixkatik dena dominatzen hor dirauenean... Eta beno, banan bana hasten ez garelako detailetan sartzen, ez punta *xorroxten*. Zer esana izango diate *asistentena* bezalakoa kolektiboak direla, *Korrikari* ukatutako huskeria dela, *Arlote* dela (gezurrak gezurtatzen *nahikoa* lan ditek azkenok) eta enparauek.

Ea zorte ona daukaan eta iristen haizean heure aurretikoen adinara, "*Procurador por tercio familiar a Cortes*" edo horrelakoren batera. Besterik gabe, oraingoz.

J.A.B. N.A.N.: 72.815.093



Gabonetako errezeta

Gateaux Basque (Euskal Tarta)

Osagarriak: Kilo bat azukre; ki-loerdi gurin; 2 kilo hirin; 16 arraultz oso-osoak; 4 zuringo; 50 gr. legamia.

Elaborazioa: Arraultzak azukrearekin jartzen dira; gurina gehitzen zaio eta hirina ere, legamiarekin. De-

na bat eginik dagoenean hotzgailura sartu gogortu dadin. Erabat gogorturik dagoenean zabal-zabal jarri. Molde desmontable bat osatu (sagar tartaren gisa) batekin, eta krema pastelaren kapa bat zabaldu (zentimetru pare batekoa) eta beste diskoarekin estali. Hor duzu benetazko Euskal Tarta.

Euskararen erabilpenaz

Azken bizpahiru urteotan eta abertzale-tzat jotzen diren kargu publiko euskaldun eta teorian euskaltzale zenbaitzuk esanen artean —alderdi politiko zenbaitutakoak berak—, honako hau entzun eta irakurtzen ari gara, alegia, enpleguatuak edo funtzionariak euskaraz ikas dezaketela —agian ez guztiek behar bezainbeste— horretara behartu eta jarritz gero, baina gero hitz egiterakoan, gutxi batzuk eta militante bilakatu direnek bakarrik erabiltzen dutela, gainerakoek norbaitek estutze-rakoan bakarrik hitz egiten dutelarik. Euskara beraz, bihotzean eraman behar dela eta ahal dakit zenbat amoriozko xelebrekeria gehiago.

Esperientzia praktiko batzuren lekuko naizenez, argitu beharreko xehetasun batzuk eskaini nahi nituzke gaurkoan. Egia da noski —eta ez Administrazioan bakarrik, gizarteko arlo guztietan baizik—, euskara ikasteko edo sarrera-azterketa gainditutako pertsona askok, gero ez duela dezakeen neurrian euskararik erabiltzen. Honek ordea, bere funtsezko zergatia aztertzeraz joz gero, badu oinarritzeko galdera eta erantzunik.

Zertan gertatzen da horrelako enpleguatu bat euskara erabili beharrean? Zertan gertatzen da erdarak erabili beharrean? Zertan du berak hizkuntza hautatzeko ahalmena? Zertan datorkio hizkuntza langaiari edo eta inguruko pertsonen lotuta, atxekia eta derrigortua?

Kasu bakoitzean galdera hauei eta hauen modukoei zehazki erantzuteak, arazoaren zatirik handiena argituko liguke noski. Hala ere, eman nahi dudana erantzun orokorra eman baino lehen, zilegi bekit niretzat ezinbestekoa den datu bat aipatzea. Duela 90 bat urte beren sasoi batekoak ziren nire alde bateko aiton-amonek, ez zekiten gaztelanirik eta ikasi ere ez zuten ikasi bizpahiru urtetako erdal eskolaren zipritinak gorabehera. Beren hizkuntza osoa euskaraz bizitu zuten. Eguneroko lana euskaraz egiten zuten, auzo-harreman guztiak euskaraz, ez zuten bidaiaitzen, ahozko herritarrekiko komunikazioa besterik ez zuten praktikatzeko. Komunikabideak oso

murritzak ziren erdaraz izan arren, eta haien beharrik ez zuten izan beren jardunerako. Moldeko letran elizak bakarrik ikusten zituzten mezaliburuan, eta haiek euskaraz, hots, osoro euskaraz bizi ziren eta erdal-dunekin inkomunikatuta zeuden. Hori izan da noski euskarak mende honetaraino soziologikoki gune trinkoetan iraun izanaren arrazoi nagusia. Hori apurtutako guneak lehenago erdaldundu ziren.

Gaur egun ere, ezagutzen ditut «Kultur Enpresa» ttiki euskaldun batzuk, beren bulegoetan erdaraz, ia kanpoko gauzei sarrera emateko bakarrik erabiltzen dituztenak —funtzionamenduzko hizkuntzaz ari naiz—. Horieta ez zaio inori burutik pasatzen (atzo sartutako euskaldunberriari ere ez) normalean erdaraz egiterik. Etxeko eta kanpoko soziolinguista ospetsuek esanen digute zergatia: ESKUARTEKO EGUNE-ROKO LANA EUSKARAZ EGI-TEA, hots, nire aiton-amonek bezala, baina diferentzia pare batekin: nagusiki euskara idatzia erabiltzea eta kanpo-harremanetarako erdarak prest edukitzea.

Gaurko funtzionamendu burokratikoak duen hizkuntz koxka hortxe dagoela iruditzen zait: EUSKARA IDATZIA ERABILTZEAN!

Zertan du euskara erabili beharrik gaurko enpleguatu edo funtzionariak? Gauza bera galdetu beharko genuke Administrazioaz kanpoko enpresa lanean ari denarengatik ere. Gehienak ere, ahozko harremanetan, hots, mintzamenetan eta eguneroko lanean orokorki, besterik ez zaio inon eskatzen. Idatzizko lana erdaraz eginda, denek ontzat ematen diote. Euskaraz bakarrik egiten badu ordea, erdara erazi egiten diote edo itzultza bidali. Hor dago segada noski. Gainera, euskaldunak prestuenari ere ezinezkoa zaio euskaraz idatzea, baldin eta bere inguruko lan-katea osoa erdaraz ari bada. Beraz lan-katea da euskaraz funtzionatzeko jarri behar dena eta ez pertsona bakunari eskatu. Bestalde, gaur gertatzen den legez, idatzlan guztiak erdaraz egin behar dituen pertsonak, euskalduna izan arren, erdaraz pentsatuz eta erdaraz hitz eginez (gutxienez ere euskara salteatua edo nahastua) bukatzen du (militante finak salbu noski).

Eta militantzia atera denez, zerbait esan nahi nuke honetaz. Herri



A. SARRIEGI ESKISABEL
Beasaingo Udaleko Euskara Arduraduna

oso bati militantea izan dadin eskatzea, astakeria hutsa da. Gizarte osorik edo gehiago nabarmenik inon ere ez da militantea izaten eta gu ez gara salbuespen izango. Militantzia soziologikoki, gutxiengo murritzak osatzen du beti, beraz albora dezagun kontzeptu hori masa handiak funtzionamenduan jartzeko bide edo formula gisa eta bila dezagun besteren bat (edo batzuk).

Jatetxe eta denda askotako ugazabak nahiz zerbitzariak euskaldunka dira eta euskaraz ere hitz egiten dute, baina menuetako elementuen izen guztiak eta katea guztiak nahiz diru-kontuak, euskaraz mintzatzean ere, erdaraz erabiltzen dituzte. Industriako langile euskaldunei ere gauza bera gertatzen zaie, denak edo gehienak euskaldunak diren lantegietan ere. Lexiko teknikoa erdaraz darabilte eta bulegoek erdaraz funtzionatzen dute eta azkenerako, ia konturatu ere egin gabe, euskara salteatuz edo erdaraz hitz eginez bukatzen dute. Honek noski, muinak jaten dizkigu lehen belaunaldian eta hizkuntzaren hondar guztiak bigarrean. Eskola eta lantegia dira horretan kausa. Lehena hasia da euskaraz ere, baina bigarrenari ekiten ez bazaio, alferrik da lehena. Mintzamen arazorik berriz ez dugu benetan konponduko, unero-unero idatzian erabili behar duguna euskaraz erabiltzen hasten ez garen arte, eta hau noski ez da militantziarekin bakarrik konpontzen.

Dugun baino militantzia handiagoa eta finagoa izatea ongarri genuke, baina horretaz gainera, sarre-ra-azterketako euskara maila gainditu duen edota euskaldundu den enpleguatuak edo funtzionariak, edo eta

ikasketak euskaraz burutu dituen gazteak, euskaraz ihardutea nahi baldin badugu, derrigorrezkoa zaigu langileek berek hauta ezin ditzaketen eta lan-sistemak derrigortzen dituen funtzioak eta eginkizunak euskaraz egiten jartzea. Funtzio eta eginkizun horiek nagusiki idatzizkoak dira bazter guztietan.

Horretarako, itzultzaileak hainbat edo gehiago, euskara-zuzentzaileak edo arduradunak beharko dira Administrazio barnean —beste gizarte arloetan ere bai noski—, euskaraz funtzionatuko dituen guneak edo atalak sortu, zirkuitoak alegia. Hasieran eta frogaldian, euskaraz, erdaraz eta elebrietan aritu beharko luke —ez haatik oraingo itzultzaile bidezko elebitasun erantsian—, hizkuntza batean zein bestean baina berezita jardunez eta trebetasuna lortzean nahiz ohitura dela bide jendearen eskaria ugaltzean, euskaraz soilki funtzionatzera iritsiko lirateke.

Arlo honetan, egin da bide-urra-keta puntualik, baina kargu publiko abertzale eta teoriarik euskaltzale den asko, ez da ausartzen horrelako benetak eta sustraizko urratsik emate-

ra, besteak beste, horrek lekarkeen berrantolaketa bortitzari beldur itzela diolako. horrelako zerbait zabal-kiro prestatzen hasi nahi ez bada ordea, sobera ditugu ahoberokeriak, bihotzez maitatzeak eta militantzia eskatzeak. Arazo honetan, berrantolaketa bortitza egiteko gogoia eta hori gauzatzeko profesionalak eta dirua behar dira. Funtsean, borondate politikoa eta diru-inbertsio handia, behar adina profesional on sortzeko, trebatzeko eta funtzionatzen jartzeko.

Dirudienez, kargudun politiko hauek ez dira oraindik jabetu edo ez dute jabetu nahi, euskaraz funtzionatzeko gunean sorkuntza eta prestakuntza, errepideak egiteko bezalaxe, proiektuak idatzi eta dirua gogotik jarritz egin behar dela (prestakuntza eskolak sortu, enpleguak prestatu, zirkuitoak antolatu, eta abar).

Bukatzeke, ez nitzioke eginbehar guztiak Administrazioari leporatu nahi ez eta erantzunkizun guztiak ere kargu publikoei. Administrazioa eta politikoak, beren txarrean ere, lehenak izan dira arazoa ukitzen hasten. Hor daude gizarte osoko

beste sektore guztiak: industria, zerbitzuak, merkataritza, komunikabideak, garraioak, eta abar. Denei dagokionez arazoa, baina bost axola zaiela dirudi.

Lehenago sortu arren, 1960-65 inguruan hasi zen Euskarazko Irakaskuntzaren eredia birstortzen, finkatzen eta zabaltzen. Ez zen garai eta une egokia teoriarik, baina orduan egin zen. 30 urte geroago, garaia dela uste dut, barruan bederen euskaraz funtzionatuko duten (idatzian noski) enpresak sortzen hasteko eta ez 'atzean buztan' dabiltzan gaietakoak, harik eta puntakoenak baizik. Zergatik ez bildu euskaraz prestatutako teknikari eta langile zenbait eta euskaraz funtzionatuko duen enpresa sortu? Zergatik ez hasi hizkuntz birmoldaketak egiten euskaldungo handia duten enpresetan?

Guzti hauek eta gehiago, ezinbesteko urratsak dira, baldin eta enplegu euskaldunek, nonahi ere euskaraz ihardutea nahi bada. Erdaraz idatziz eta gainbeherako euskaraz batzutan hitz eginez lan egiten jarraituz gero, euskaraz ez du bizirik luzarorako.

GARAJE "LAZKAO"



Renault
ZERBITZU OFIZIALA

Salmenta eta jatorrizko errekanbioak
kotxe konponketa orokorrean

San Prudentzio Auzoa, z/g. Tfnoa: 88 24 42 LAZKAO



Inaki

APAINKETA ARETOA ILEAPAINDEGIA

Gudarien Etorbidea, 5-Behea. Tfnoa: 88 87 45 20240 ORDIZIA



ZURICH
ASEGUROAK

GURUTZ BARANDIARAN

Esteban Lasa, 7-1.º C - Teléfono, 88 88 92


BEASAIN



DAR

PoTt

BEASAIN



XR2i



FORMULA BERRIA

MUSIKA
Automobilak



Errepide Nagusia, l. 419Km.a

Tfnoa: 88 74 00 BEASAIN

Hizkuntza Saltsan Bazkaltzeko

Hizkuntza bera komunikabide izanik, askotan komunikagai edo elkarriketa gai ere gertatzen zaigu. Jakintsuek diotenez, hori horrela izatea, hizketagai izatea, hizkuntzaren egoera tamalgarriaren erakusgarri da; izan ere, inork ez omen du gaztelerari buruz hitzegiten, bai ordea gazteleraz eta makina bat aldiz ari ohi gara euskarari buruz hitzegiten, euskaraz edo erdaraz ari garen erreparatu gabe.

Baina hizkuntza gai tekniko bezala eztabaidatzeaz aparte, euskararen kasuan behintzat, askoren ahotan erabilia dugu; hots, gaztelau edo frantses batek esaldi baten bidez zerbait komunikatu eta hor bukatzen bada ere, euskaldunak komunikatzean erabili duen esaldi berori komunikagai bihur daiteke. Honen adibide arruntena, Goierrin bederen honako elkarriketatxo hau gerta daiteke:

— Zer diagu Peña? Basoerdi bana hartuko al diagu?

— Hala ere,... Atzo ferian ikusi nian eta ez hidan kasurik egin... Hasserre hengoelakoan nengoan.

— Zer "ikusi nian" eta zer "ikusi nian" ondoko... Ikusi hindudan esan nahiko duk, ezta?

— Hara, hasi zaiguk orain ere jakintsu uzteko hau...!

Eta hor bukatzen da gure lagunen arteko feria kontua; oraingo gaia lehen beste gai bat adierazteko bide zena da. Honen zergatiak aipatzeko hau eta beste honenbesteko lana egin beharko genukeenez bere horretan utzi eta jarrai dezagun!

Hizkuntza, beste edozein gai bezala txistek eta txiste-modukoak sortzeko beste edozein gai bezain aproposa gerta daiteke. Lehenago esan dudana guztiagatik, norbaitek pentsa lezake euskara bakarrik izan ohi dela txistetarako gai, baina beste hizkuntza guztietan ere badira hizkuntzaren inguruan osatutako txistek. Desberdintasuna, ordea, txistek sortzeko bide desberdinetan dagoela uste dut; izan ere, beste hizkuntzetan hitzen esanahi bikoitzaz baliatuz edo, txistek egin arren, ez bait da txisterik egiten hizkuntza ez ezagutzetik eta eginda ere gutxi egiten bait da hizkuntza bateko modismoak bestean literalki itzuli nahi izatetik.

Hona hemen hizkuntzaren erabilera okerra dela eta farregura sortzen diguten zenbait esaldi eta hitz:

- Iratzargailuak zintz egin zuen.
- Elurrak ez zuen gatzatu.
- Trenen azpikogona.
- Autobusak bihar eta berandu.
- Txomin Ameriketara erdibitu zen.
- Autobuserako ongarria ez da merkea.
- Bihar hilketa batetara noa.
- Neskatan kriston arrastaka dauka.
- Txuri-uridin marraskiloarekin idazten da.
- Gaur bazkaltzeko hizkuntza saltsan daukazu.
- Bilboko Corte Ingleseko eskailera-buruetan: lehenengo landarea, bigarren landarea,...
- Tabernan: atera itzazu bi beltz eta hiru noski.
- Bizitza salgai (etxebizitzaren orde).

(jarraituko dugu)

J.M. Ormazabal

belén

JOSTAILUAK

Urdaneta, 24 - Tfnoa: 88 52 65
20240 ORDIZIA

Zorionak
eta Urte berri on

MUEBLES

Ordizia


HALTZARIAK

46, Posta Kutxa
ORDIZIA

Tfnoak: 88 23 50
88 23 54
88 11 92
88 53 50

ardoa bezalakorik ... EZ

Atx. 89



GOIERRITARRA

Euskara: premia ala apaingarria?

Zeinek esango zigukeen orain hamar urte, ikastolek lehendabiziko kilometroakospatzeko GOIERRI aukeratu zutenean edota «Euskara kalera, lantegira, eskolara» edo «bai euskarari» ren antzeko kanpainen pil-pil lehergarri eta hunkigarrien ondoren, barretasun urragarri eta urriagarri baten hatzaparretan eroriko ginatekeela, amesgaizto baten antzerako zulorantz etengabe, oraindik hondoa antzeman ezinik, urduri, ezinbestekoaren beldurrez, noiz artekoa jakin gabe, etsi-etsi eginda.

Goierrri, teoriar, bere errealitate sozio-demografiko eta tradizioaren kausaz baldintza ezinhobeak eskaini litzakeen eskualdeetako bat, gaur egun hain entzuna den «basamortu kulturala» ren lista beltzean ez ote dagoen sartzerik, euskarari erreparatu gero, baieztatzea ez dugu uste astakeria izango litzatekeenik.

Banakako figura edo talde-iniziatiba aislatu batzu eta Euskaltegi ezberdinen inguruan sortutako mogimenduak izan ezik, zein da ba jendearen bizitza sozialaren atal ezberdinetan euskararen presentzia, hutsaren gerturikoa ez bada? Eta hau konfirmatuko luketen datuak badaude: Beasainen euskararen presentzia kalean neurtzeko egindako azterketaren arabera («Euskal Herrian Euskaraz» erakundeak burututakoa), 14-25 eta 25-64 urte bitarteko pertsonen arteko hitzeko komunikazioetan %15ean soilik erabiltzen da euskara. Antzeko zerbait gertatzen da Lazkaon.

Erromatarrek, mendeek eta mendeek, Francok... lortu ez zutena, Informatika garaietako utzikeriak lortu behar al du? EEBBetako indioek beren hondamendian bufalorik gabe plott egin zuten moduan, euskara, bazka egin eta atse den hartzeko belardi-belarrik gabe geratzeko arriskuan dago; hau ez da alarmista izatea baizik eta gaurko joeren norabide posibleenetako bat mahaigaineratzea.

Iraganean esperantza eta atrebentzia bagenezkan, egun gutxituz dihoazkigu, beharbada erabateko lehortearen besoetan itzaldur arte. Erakundearen erantzunkizuna —jendearen ajolagabekeria— «status quo»aren muga gainditezinek osatutako gurpil zoro honen bizioak ezagutzeak ez du kentzen joera absurdoen jakinerazteari lekua ematea.

Hel diezaiozun, ba! Hasteko esan behar printzipio praktikoa neurtzeki ekin gero gure arteko udalgizonen artean badagoela zer bereizturik: zilarrezko orraze gisa urteko ospakizun handietarako, goata artean nahi bada, baina praktikotasunetik urrutitxo, oso altu, goiko apalean, agian ikutua edo zikindua izan ez dadin, euskara gordetzeko asmoa duenetik, egunero ihardunez kaleko errealitatearen giro deprimentearen baitan, askotan itsu-makilkadaz baina zalantza ezinezko gogoz benetan zerbait egiten saiatzen denarainoko gama zabala, borondate onak batetik, ijitokeriak eta interes ezkutuak bestetik, interes partidistak, protagonismo politikoak gehientsuenetan. Hala ere amildegi-aldea dago erdizkatik bajuagora edo ia euskara ez dakien agintari, bitartekari e.a., eta, inpotentziagatik testimonialismoa baino lortu ez arren, hizkuntzaz kezkatzen den kargu publikoen artean.

Honen lekuko Euskara Batzordeen eraginkortasun eza delako gatazka politiko horiek direla medio: gurdia ibilbidea galerazten duten praktika antzuak, bueltan jasoko dugun «boomerange»aren masailekoa, zaplastakoa iragartzen ari zaizkigu, zenbait yuppiren diskurtsoari darion optimismo absurdoa pozoingarri bihurtuko bait zaigu, graziazko estokada; baten bat parrez lehertzen ari da honez gero, ziur, gogoratu nahi ez dugun ez dakit nongo «aski» ondo enmokatutako bulegotan.

Burokraziarekin egin dugu topo, hain zuzen: Euskarak behar duen adostasun minimo horren ezak denbora galtzea eta erretxintzea dakartzkigu. Bizi dugun panorama eta miexiaren seinale garbia. Hiritargoaren botere-ordezkatze mekanismoak ez dirudi funtzionamendu lojikoaren esparruetan mugitzen direnik. Mundu guztia euskararen alde dagoelarik Aukeratu-Aukeratzailen arteko dibortzioa ez da brometakoa. Gerta liteke bestela, alderdi horien barnean presio-indar gutxi izatea euskaltzaleek. Euskaldungoaren lehengaia euskara delarik eta euskaldungoa alderdi politiko ezberdinetan zatitua dagoelarik nabarmen nabarmena da gutxiesten zaigula aldare ilunen baten mesedetan gure nahiak sakrifikatuz eta itxuraldatuz.

Noizbehinkako gozokiak fetxa seinalatuetan partitzearekin ez goaz inora. Karameluen kameloek ez digute botagura areagotzeko baino balio. Euskararen menpekotasun eta garrantzi ezaren karatxo-tzar hori zornatzen ari zaigularik badago nahikoa lan, gauzak tajuz egiteko adina behinepein!

Itxurakeriarekin ez goaz inora: Esaterako, gure eskualdeko zenbait udalek subentzioak banatzen dituzte komertzioaren errotiluzioa euskarazko moldeetarantz hurbiltzearen. Gure kaleetatik paseotxo bat hasi edo propagandaren ikusmiratzearekin konturatuko gara egindako bidearen tamaina kaxkarra baino eskaxagoaz, eta ondorioz ideiak erreziklatu eta egokitzearen beharraz. Baina euskara anaia pobre gogaikarria bihurtu bait zaigu... diotenez... eta dirua, hain gauza «ez errentable»-etan gastatzeak ez omen du merezi. Honela euskararen gaineko espezialista, teknikari, soziolinguistak e.a. ez dira aintzakotzat hartuak izaten, urbanismo, marketing edo beste edozein alorretakoekin alderatuz gero. Errealitatearen ispilu beltza.

Plangintza zientifiko baten eskaera zakarrontzitik errekuperatzeko garaia ez ote?

Goierritarrok



PUBLIZITATE ESKAINTZA

1.000 Aletako tirada izango du GOIERRITARRAK hasiera batean; Goierrri osoan, komertzio, taberna, kiosko eta harpidedunen bidez banatu beharrekoak. PUBLIZITATE TARIFAK honako hauek izango dira:

BARNE ORRIALDEA

Orrialde osoa.....30.000 pzta.
Orrialde erdia15.000 pzta.
Hamarreko moduloa.....3.000 pzta.
tarteko moduloa 7.000 pzta.

ATZEKALDEKOA

Orrialde osoa
(zuri-beltzez)40.000 pzta.
orrialde erdia (koloretan) 25.000 pzta.



Publizitate hori argitaratu ahal izateko zuen etxearen fotolito, tarjeta, anagrama e.a.en bila pasatuko ginatke, (beste zenbait aldizkarietan edo herrietako festetako programa edo karteletan ateratako zeuon moduloak aprobetxatu genitzazke). Fotolito hori (k) hurrengo zenbakietarako guk gorde ahal izatea eskatuko genizueke, gauzak erreztearren. Gainantzean urte osorako ala hilabete bakoitzean hilabete horetako publizitatea egin nahi duzuen, zuen esku daude noizkoak eta nolakoak.

Harremanetarako, gure POSTA KUTXA Ordiziako 124.a da; diru sarrerak GK-ren Ordiziako sukurtsala, KONTU KORRENTA-REN zenbakia: 01 1.427.276-8.

EROS, IRAKURRI ETA ZABALTZAZU GOIERRITARRA

Debaldeko iragarkia
orria izango da.
Testua idatzi eta bidali
gure bulegoetara
GOIERRITARRA
124 psta kutxa.
ORDIZIA

BALIZKO KOLABORATZAILEEI DEIA:

Herrietako, baita txikienetako, kolaboratzailerik gabe ez gara izango. Banakakoen nahiz taldekoen herri bakoitzeko kronikak, berriak, balorapenak gustora hartuko genituzke. Beren txokoa izango lukete.

Era berean kolaborazio literario, bai periodistikoak baieta artistikoak baita edozernolako argibide, lan idatzi, eritzi, argazki lanak e.a. zinez eskertuko genituzke.

Ordiziako 124 Posta Kutxara bidali ditzakezue lantxo hoiek.

Etxe honetako ateak ez dira ixten, parez pare, alderikalde zabalik ditugu parte hartu nahiz gero.

TESTUA: _____

NIK ERE HARPIDEDUN IZAN NAHI DUT

IZEN-DEITURAK.....
HELBIDEA.....
HERRIA..... D.P.....
HERRIALDEA..... TLF.....

DIRUSARRERAK: GK: 01*1.427.276-8
Ordizia

Urtebeteko
harpidetza
saria
1500 pzta.



124 posta kutxa. Ordizia

GOIERRITARRA



2. xendakia. 89ko abendua. 175 pxta.

Goierriko enzkaldunon abdikaria.

GOIERRITARRA HILABETEKARIA



10

H C B A

$$V = \frac{1}{4} = 0.250$$

AGENDA:

Abendua/Urtaria

1,20

C M D T R

$$V = \frac{1}{3} = 0.300$$

ATUAN
FUTBOL TALDEA

5

N B H E Z U

$$V = \frac{1}{2} = 0.500$$

INKESTA:
«SOLDADU2KA»

3,25

E C N V O H D

$$V = \frac{2}{3} = 0.700$$

J.M. BARANDIA-
RAN
6ta
J.M. APALATEGI
Aurrez aurre

2,5 Metro

C N F M O H Z T R

$$V = 1 = 1.000$$

GOIERRITARRA

METRO-V/S

ez ER De  aZ KIs KI~kasA